



LEHENDAKARITZA

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia
Koordinazio Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de la Presidencia
Dirección de Coordinación

KOORDINAZIO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA, KULTURA 2025 PLAN ESTRATEGIKOAREN PROPOSAMENARI BURUZ.

I. AURREKARIAK

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez, XII. Legegintzaldirako Plan Estrategikoen zerrenda, plan horiek egiteko orientazio orokorrak eta horiek izapidetzeko jarraitu beharreko prozedura onartu ziren. XII. Legegintzaldiko plan estrategikoen zerrendan, Kulturaren Plan Estrategikoa jaso zen, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saila identifikatu zen plan horren sustatzaile.

Uztailaren 22an, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, sail sustatzailea den aldetik, Koordinazio Zuzendaritzaren txostena eskatu zuen. Tramitagune aplikazioaren bidez egin zuen txosten eskaera, zehazki “KULTURA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA” proposamenari buruz (AAAA_PDG_3994/22_11 espediente zenbakia).

Edonola ere, Planaren ekonomia- eta aurrekontu-edukiari lotutako alderdiak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren eta Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenetan aztertu dira.

II. TXOSTENAREN XEDEA

Txosten honen xedea da Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzak “KULTURA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA” (aurrerantzean, KPE) proiektuari buruz egindako gogoetak ematea, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakian ezarritakoari dagokionez.

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakian ezarritakoaren arabera, txosten honetan, planaren alderdi hauek balioetsiko dira:

- Koherentzia Gobernu Programaren eta legegintzaldiko gainerako erakunde-dokumentuen eduki eta helburuekin.
- Bere ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-antolamenduaren eta eskumen esparruaren barruan kokatzea, bai eta beste administrazio eremu batzuekin koordinatzea ere.
- Koherentzia Jaurlaritzaren plangintza orokorrarekin eta Gobernu Programan ezarritako jarraipen-adierazle eta -helburuekin.

Txosten hau Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 11. artikuluko a) eta c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera egin da. Dekretu horrek Koordinazio Zuzendaritzari esleitzen dio Jaurlaritzaren jarduna koordinatzeko eta haren jarraipena egiteko eginkizuna, bai eta sailei jarduerak planifikatzeko eta programatzeko aholkularitza ematekoa ere.



Nabarmendu behar da txosten honetan jasotako oharra Koordinazio Zuzendaritzak egiten duen aholkularitza-lanaren osagarri direla.

Aurrekoaren harira, gogorazi behar da Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiak, I. eranskineko 2. puntuan, adierazten duela sail sustatzaileak Lehendakartzako Koordinazio Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren laguntza eta lankidetzaren izango dituela planaren proposamena egiteko prozesuan.

Horrekin bat etorritik, Koordinazio Zuzendaritza honek Planaren aurreko bertsioei buruzko ekarpenak egiteko aukera izan du, eta ekarpen horiek orain aurkeztu den proposamenaren edukia baldintzatu dute.

III. KPE, XII. LEGEGINTZALDIKO PLANGINTZAREN ORIENTABIDE OROKORREI DAGOKIENEZ

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiak, I. eranskineko I.2 atalean, orientabide orokor batzuk jasotzen ditu, plangintza estrategikoaren lantze-prozesua eta edukiak homogeneizatzeko.

Aipatutako orientabide orokorren edukietatik abiatuta, egokitzen diren gogoetak aipatzen dira jarraian:

a) Gobernu Programan politika publiko bakoitzerako ezarritako edukiei erantzun behar diete plan estrategikoei.

XII. Legegintzaldiko Gobernu Programak, II ardatzean (pertsonak), 18.1 arloan (kultura), honako hau dio: *“Kultura nortasuna eraikitze elementu bat da, baita pertsonengan eta gizartean izaera kritikoa indartzeko ere. Gainera, enplegua eta aberastasuna sortzen dituen jarduerak bat da, kohesiorako eta gizarteratzerako faktorea izateaz gain. Garatuko diren politika kulturalak kulturaren balio horiek guztiak orekaz indartzera bideratuta egongo dira, sorkuntza eta produkzioa babestuz, eskaintza kulturala demokratizatuz eta kulturaren kontserbazioa-transmisioa bultzatuz, zehazki, zeharkako bi jarduketara-ardatz hauekin: emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna eta euskaraz sortutako eta bizitako kulturaren berariazko bultzada”*. Gobernu Programan, 18.1 arloan ezarritakoarekin bat etorritik, hiru ardatz jaso ditu KPEk (sorkuntza, eskaintza eta transmisioa), zeharkako bi konpromisoekin batera (euskara eta berdintasuna).

KPEk edukiak ardatz horietan egituratzeaz gain, kultura arloari dagozkion Gobernu Programako konpromisoak eta ekimenak zuzen identifikatzen dituela nabarmendu behar dugu.

Alde batetik, Kultura eta Hizkuntza Sailari dagokionez, 112-116 konpromisoak aipatzen ditu. Bestetik, Jaurlaritzaren gainontzeko sailei dagokienez, lankidetzaren burutu



beharreko konpromiso eta ekimenak jasotzen ditu: 19. konpromisoaren 3. Ekimena¹ ; 40. konpromisoaren 1. ekimena²; eta 67. konpromisoaren 3. ekimena³. Halaber, konpromiso eta ekimenak identifikatu ez ezik, sail horiei dagozkien jarduerak ere jaso direla adierazi behar dugu.

Dena den, lankidetzan gauzatu beharreko konpromiso eta ekimenen zerrendan, 42. konpromisoaren 5. Ekimenari⁴, 87. konpromisoaren 5. ekimenari⁵ eta 137. konpromisoaren 3. ekimenari⁶ aipamena egitea komeni den aztertu beharko litzateke. Era berean, Gobernu Programarekin bat eginez, 87. Konpromisoaren 5. ekimena gauzatzeko jarduerak ere jaso beharko lirateke.

Aipatutako konpromisoak eta ekimenak erreferentzia garrantzitsuak dira bat egiten duten eremuak identifikatzeko. Bat egiteko eremu horietatik abiatuta, baloratu daiteke ea beste sail batzuei dagozkien konpromiso eta ekimenetan sar daitezkeen jarduera batzuk kulturaren plan estrategikoan txerta daitezkeen. Hala ez balitz, planaren eremu objektibotik kanpo dauden jarduerak direlako, sinergiak aprobetxatzeko beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak ezarri beharko lirateke.

Konpromisoen hautaketa horrek erraztu egiten du kulturaren zeharkako izaera ulertzea, eta justifikatu egiten du plangintza-ekitaldi honetan egotea, gobernuaren ekintza koordinatzeko, eta, aldi berean, gainerako euskal erakundeekin lantzeko baliagarria izan daitekeelako.

Bestalde, KPEk Gobernu Programak identifikatutako herri-helburuetan zuzenean eragiten ez badu ere, hainbat helbururekin zeharkako lotura duenik ezin da ukatu; hala nola, berdintasunaren arloan zein euskararen esparruan.

5. herri-helburua: Euskadi genero-indizerik altuena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea.

6. herri-helburua: Eskola-uztearen tasa % 7aren azpitik finkatzea eta euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egitea.

Gobernu Programaren eta KPEren edukien arteko analisi konparatibo batetik abiatuta (funtsean, "1.5. PLAN ESTRATEGIKOAREN MARKO PROGRAMATIKOA" atalean), esan dezakegu, oro har, lerrokatze egokia ikusten dela. Lerrokatze egoki hori ezinbesteko premisa da KPEk Gobernu Programan ezarritako helburuak gauzatzeko.

b) XII. Legegintzaldiko plan estrategikoek bat etorri behar dute, beren jarduera-eremuan, nazioarteko eta Europako politikekin.

¹ Gobernu Programaren I. ardatza, 3. arloa: Ikerketa eta Berrikuntza.

² Gobernu Programaren I. ardatza, 7. arloa: Turismo Jasangarria eta Bikaintasuneko.

³ Gobernu Programaren II. ardatza, 10.3 arloa, Unibertsitatea eta Ikerketa.

⁴ Gobernu Programaren I. ardatza, 7. arloa: Turismo Jasangarria eta Bikaintasuneko.

⁵ Gobernu Programaren II. ardatza, 12. arloa: Gizarte-politikak eta Gazteria.

⁶ Gobernu Programaren IV. ardatza, 22. arloa: Euskadi Basque Country.



Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari buruzko azaleko azterketa eginda, kultur ondarearen babesari buruz 11.4 helmugan esandakoa alde batera utzita, pentsa liteke kultura arloa Garapen Jasangarriko Helburuetatik kanpo geratzen dela. Azterketa terminologikoaz haratago, kontzeptuen azterketan sakonduz gero, konexioak nabariak dira. UNESCOren argitalpenetatik ondorioztatzen denez, kultura Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren osagaia da. Kultur-ekoizpena, -eskaintza eta -transmisioa babestu eta sustatzea, berez, kultura arloko politika publikoek bilatzen duten helburu ez ezik, GJH⁷ asko lortzen laguntzeko baliabide ere badira. Hain zuzen ere, kultura baliagarria da kalitatezko hezkuntzarako aukerak bermatzeko eta gizarte inklusiboak sustatzeko (4. GJH), industria, berrikuntza eta azpiegiturak bultzatzeko (9. GJH), hiri eta komunitate seguruak eta jasangarriak lortzeko (11. GJH), osasuna eta ongizatea sustatzeko (3. GJH), lan duina eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko (8. GJH), pobrezia desagerrarazteko (1. GJH), desberdintasunak murrizteko (10. GJH), ingurumenaren degradazioa geldiarazteko (13. GJH), genero-berdintasuna lortzeko (5. GJH).

KPEk GJH zehatzekin duen lotura beren-beregi adierazten ez badu ere, nolabait, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin duen konexioa azaltzen du. Ildo horretatik, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan kulturari eta hizkuntzari lotutako 18. Helburua txertatuko delarik, kultura GJHak lortzeko giltzarri dela aditzera ematen du.

Bestalde, “1.6 EUROPAKO MARKOA” atalean, Europa mailako hainbat erreferentzia aipatzen dira.

Nolanahi ere, Kulturarako Europako Agenda Berriak⁸ (COM/2018/267) marko orokorra ezartzen duela ezin dugu ahaztu.

Estatu kideek eskumen eskusiboa dute kultura-politikaren arloan; eta Europar Batasunaren zeregina, berriz, lankidetzara sustatzea eta estatu kideen jarduerak babestea eta osatzea da.

Agenda horren helburua kulturaren potentziala bete-betean aprobeztatzea da, Batasun integratzaileago eta bidezkoago bat eraikitzen laguntzeko, berrikuntza, sormena eta hazkunde eta enplegu jasangarriak babestuz.

Agenda Berriak hiru helburu estrategiko ditu, hiru dimentsiorekin lotuta:

⁷ Garapen Jasangarriko Helburuak

⁸ Kulturarako Europako Agenda berria esteka honetan eskuragarri dago: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=COM:2018:267:FIN>. Agenda, 2019-2022 lan planaren bidez gauzatuko da. Bertan sei lehentasun identifikatzen dira: 1) kultura-ondarearen jasangarritasuna; 2) kohesioa eta ongizatea; 3) sormenean eta kulturaren eta Europako edukietan artistei eta profesionali laguntzen dien ekosistema garatzea; 4) genero-berdintasuna; 5) nazioarteko kultura-harremanak eta 6) kultura, garapen jasangarrirako motor gisa (lehentasun hori 2020an [gehitu](#) zen, Kontseiluak Kulturaren arloko Lan Plana aldatu baitzuen). Lehentasunak hemezortzi neurri zehatzetan jartzen dira praktikan.



- a) Dimentsio soziala: kulturak eta kultura-aniztasunak ongizaterako eta gizarte-kohesiorako duten potentziala erabiltzea.
- b) Dimentsio ekonomikoa: Kulturaren oinarritutako sormena sustatzea hezkuntzaren eta berrikuntzaren, eta enplegurako eta hazkunderako.
- c) Kanpo-dimentsioa: Nazioarteko kultura-harremanak indartzea.

KPEren edukiek dimentsio horiei erantzuna ematen badiote ere, Agendari erreferentzia esplizitua egitea baloratu beharko litzateke. Izan ere, kultura arloan Europa mailako marko estrategikoa ezartzen du.

Edonola ere, KPEk nazioarteko eta Europako politikak aintzat hartu eta beraiekin bat egin duela ondorioztatu behar dugu.

c) XII. Legegintzaldiko Plan Estrategikoei bat etorri behar dute Jaurlaritzaren aurrekontu-programazioarekin eta plangintza ekonomikoarekin.

Plangintzaren eduki horiek KPE proposamenaren "5. PLANGINTZA EKONOMIKOA" atalean aurkezten dira. Nolanahi ere, arlo ekonomikoari dagokionez, kontuan hartu beharko dira Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren eta Aurrekontuen Zuzendaritzaren txostenetan jasotako gogoetak.

Hala ere, azpimarratu behar dugu plangintzaldi honetarako dagoen salbuespenezko egoera. Izan ere, Europa Batasunetik Euskadira etorri litezkeen funtsen ondorioz, gerta daiteke planari aplikatu beharreko aurrekontuak berrikusi eta eguneratu behar izatea.

d) Plan estrategiko bakoitzaren abiapuntuko oinarriak, ahal den neurrian, kontuan hartu beharko du aurreko aldiaren inplementatutako plana, behar bezala ebaluatuta.

Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren I. eranskinen I.2 puntuak ezartzen duenez, "*Plan Estrategiko bakoitzaren abiapuntuan, ahal den neurrian, aurreko aldiaren inplementatutako plana kontuan hartu beharko da, behar bezala ebaluatuta*". Orientazio hori politika publikoa ezartzeko zirkuluari dagokio: diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa, diseinu berri batekin hasteko ezinbesteko urrats gisa.

KPEren 2.4 atalean azaltzen denez, COVID-19ren pandemiak markatu ditu 2020 ondoko urteok. Gizartea hankaz gora jarri duen osasun larrialdiak bereziki gogor astindu du kulturaren eremua bere aspektu guztietan: sorkuntzan, ekoizpenean, kultur eskaintza bideratzen duten antolamendu publiko eta pribatuetan, haien gizartearekiko harremanetan eta publikoen beraren ohituretan. Ohiko jarduna eten egin zen eta urte horretarako aurrekusiak zeuden jardura eta ekintzak bertan behera geratu ziren.

Nolabait aditzera ematen da COVID-19aren pandemiaren ondorioz aurreko aldiaren inplementatutako plana ez dela bere horretan exekutatu (1.5. atalean hala adierazten da). Aitzitik, COVID-19aren disrupzioak ez luke aurreko planaren ebaluazioa galarazi beharko.



Aztergai dugun planak ordea, Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdiaren egoerari eman zion erantzuna azaltzen du. Aldez aurreko diagnostiko egokia ezinbestekoa da politika baten diseinu egokia egiteko, eta, horretarako, konpondu beharreko arazoaren egoera aztertu behar da. Baina, era berean, ordurarte egindakoaren azterketa egin behar da ere, eta zer neurritan egokitu diren aurreikusitako neurriak desbideratzeak zuzentzeko.

Dena den, ez dugu gutxietsi nahi “2.2. KULTURAREN EGOERA DATUETAN” atalean eta “2.3 2019-2022 PLANAREN BALANTZEA” atalean jasotako informazio kuantitatibo eta kualitatibo xehea.

Ondorioztatzen denez, politika publiko baten ebaluazioan ezinbesteko baldintzatzaileetako bat betetzen bada ere –hau da, hurrengo plangintza diseinatzeko ebaluazioa–, agian, aurretiaz inplementatutako politika publikoaren egokitasunaren ebaluazioarekin osatu zitekeen.

e) Plangintza estrategikoaren indarraldia bat etorriko da, ahal den neurrian, Europako edo, hala badagokio, nazioarteko plangintza-mugarriekin.

KPEk 2022tik 2025ra bitarteko indarraldia ezartzen du, lehen aipatutako planen jarraipen gisa (2019-2022 Kultura Plana).

Kasu honetan, Europa eta nazioarte mailan ez dugu jasotako indarraldia baldintza lezaken plangintza-mugarriak aurkitu.

Bestalde, indarraldia baldintzatzen duen lege-manurik ez dagoenez, KPE inspiratzen duten plangintza-dokumentuen indarraldia aztertuko dugu.

KPEn honako erreferentzia hauek topatu ditugu:

- Zientzia, Teknologia eta berrikuntza Plana (ZTBP) 2030.
- Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024.
- Euskal Hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako Plana 2022-2024.
- Euskadi Basque Country Estrategia 2025.
- Turismoaren eta merkataritzaren plan estrategikoa.
- Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa 2020-2024.
- Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriko 2030 Agenda.
- Hizkuntza Teknologia Plana
- II. Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategia (2022-2026)

Nahiz eta kulturaren plan estrategikoa ez datorren bat, denboraren ikuspegitik, arestian zerrendatutako plangintza-dokumentuekin, plangintzaren testuinguruan jartzen duen tratamenduarekin (planaren 1.5 atala) eta aipatutako planaren 3. atalarekin, lerrokatze egokia dagoela pentsarazten digu.



Hala ere, erreferentziazko plangintzekin denbora-kointzidentziarik ez dagoela egiaztatuta (Euskadi Basque Country 2025 Estrategia izan ezik), interesgarria izan liteke aukera hori egitera eraman duten arrazoiei buruzko informazioa osatzea; kontuan hartuta, halaber, proposatutako epea legediaz haratago doan ikuspegia duela.

f) Plan estrategiko bakoitza egiteko eta ezartzeko, sail bakoitzaren berezko zerbitzuak erabiliko dira lehentasunez, eta, beharrezkoa izanez gero, kanpoko zerbitzuen laguntza izango da elementu osagarri gisa edo laguntzeko idazkaritza tekniko gisa.

KPEk formulatzeko prozesuan Koordinazio Zuzendaritzarekin izandako hartu emanetan argi ikusi denez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berezko baliabideak erabili izan ditu. Zehazki, Kultura Sailburuordetzak hartu du bere gain plana egituratzea, egoeraren diagnosikoa eta egindakoaren balantzea lantzea⁹.

Ondorioz, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiak jasotako betekizun hau betetzat jotzen dugu.

g) Planak adierazle homologagarrien sistema bat jasoko du, inplementatutako politikaren emaitzen urteko ebaluazioa egiteko aukera emango duena, eta, haren alderdi nuklearrei dagokienez, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren gauzatzearen jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin bat datozenak. Era berean, plan orok bere betetze-mailari buruzko azken txosten bat jaso beharko du, eta lau urtetik gorako iraupena duten planen kasuan, jarraipenerako tarteko txostenak.

- *Jarraipen- eta ebaluazio-sistema*

KPEren arabera,

*“Plana indarrean dagoen denboran, urtero **Urteko Ekintza Plana (UEP)** egingo du Jarraipen eta Ebaluaziorako Kultura eta Hizkuntza Politikako barne Lantaldeak, Kultura Sailburuordeak ontzat eman dezan. Urte hasieran onartuko da UEP. Urteko Ekintza Planean zehaztuko dira Helburu Estrategiko bakoitzari dagokionean garatuko diren ekintza zehatzak, horien arduradunak, parte hartuko duten beste erakunde edota eragileak, aurrekontua eta egutegia. Urtero baita ere, **Jardueraren Memoria edota Urteko Ekintza Planaren betetze txostena** onartuko du.*

Txosten hauen azterketa eta jarraipena egiteko, Jarraipen eta Ebaluazio lantaldea urtean, gutxienez, bi aldiz elkartuko da, (planaren jarraipenaren egiteko). Aipatutako txostenak, beharrezko liratekeen tarteko txostenak, edota sor litezkeen bestelako txostenak egitearen ardura Idazkaritza Teknikoarena izango da. [...]

Urteroko jarraipenaz gain, Kultura 2025 Plan Estrategikoak amaierako Ebaluazio Txosten bat izango du, 2026an onartuko dena. Bertan jasoko da, Planaren

⁹ Hala zehazten da KPEren “7.1. Planaren eraikuntza” atalean.



*helburuen **betetze mailaren informazioa** batetik, eta bestetik, jarraian proposatzen diren **adierazleen informazioa**.”*

Jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak plangintza osoa lagundu behar du, lortutako emaitzak baloratzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Horretarako funtsezkoa da abiapuntua eta helmuga zehaztea, bestela plana ez litzateke bere horretan ebaluagarria izango. Bi iruzkin horren harira:

- KPE Ekintza planen bitartez garatuko da; eta ekintza plan horien betetze txostena ere egingo da urtero. Halere, ebaluazio hori (betetze mailarena, alegia) planaren 4. atalean jasotako neurri zehatzen ondoriozko jarduera- eta emaitza-adierazleekin osatzeko aukera aztertu beharko litzateke.
- KPEk amaierako ebaluazio txosten bat aurreikusten du. Egokia da betetze mailaren informazioa eta adierazleen informazioa bertan jasotzea; baina adierazleen zerrenda ikusita, ondo legoke baita ere aurreikusitako jarduerak lortutako eraginak aztertzea KPEren jasotako politika publikoak izan duen eragina ebaluatze aldera.

Azkenik, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren I. eranskinaren Jarraipena eta ebaluazioa izeneko 4.2. atalean ezartzen den bezala, Gobernu Kontseiluak Plan Estrategikoa onartzeko erabakian jaso beharko dira Planak alderdi horretan dituen konpromisoak.

- *Adierazleen sistema*

Hasteko, gureak egiten ditugu Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzaren txostenean jasotako oharra.

Laburbilduz, honako gabeziak atzeman ditugu:

- Proposatutako hainbat adierazlek ez dute abiapunturi buruzko daturik. Gabezia hori estimazio datu batekin konpondu liteke.
- Beste adierazle batzuk termino absolutuetan adierazita daude, eta ez termino erlatiboetan. Termino erlatiboetan adieraztea proposatzen dugu, horrela plangintzaren indarraldiaren hasierako oinarrizko datua (hau da, abiapuntua) eta azken helburua (hau da, helmuga) ezarrita, bilakaeraren analisisia errazten da.
- Deigarria iruditu zaigu “Artxibo Legearen onarpena (Kultura Sailburuordetza)” adierazlea. Legeen onarpena Eusko Legebiltzarraren eskumena da, ez Eusko Jaurlaritzarena. Gainera, egun, indarrean dago ekainaren 23ko 5/2022 Legea¹⁰.

¹⁰ [5/2022 Legea, ekainaren 23koa](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena.



Hortaz, uste dugu adierazle hori moldatu beharko litzatekela, berriki indarrean sartu den lege horren eragina neurtzeko baliagarria den adierazle batekin ordezkatzuz, adibidez. Izan ere, araua indarrean jartzea eta betetzea planean jasotako helburu hori betetzeko tresna da.

KPEren 7. atalean proposatutako adierazleen panelak 26 adierazle jasotzen ditu. Proposatutako adierazleen panela 4 helburu estrategikoen eta adierazleen arteko lotura eginez egituratzen da, eta horri balioa eman behar zaio planaren jarraipena eta ebaluazioa errazten duen neurrian.

Alabaina, KPEn proposatutako adierazle-panelak bat etorri behar du, haren alderdi nuklearretan, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programaren gauzatzearen jarraipena egiteko ezarritako adierazleekin. Beheko koadroan KPEn adierazleak eta Gobernu Programaren adierazle sistema erkatu ditugu:

Gobernu Programaren adierazle sistema	KPEren adierazleak
D11-5	Euskal Autonomia Erkidegoak kulturaren egindako gastu kontsolidatua.
D11-6	Kultura-enpleguaren ehunekoa enplegu osoaren gainean, autonomia-erkidegoen arabera.
D11-7	Kultura-enpresen ehunekoa enpresa guztiekiko, autonomia-erkidegoen arabera.
D11-8	Aisiarako irakurketa 15 eta 29 urte arteko gazteen artean.

Bien arteko integrazioan aurrera egiteko, planaren adierazleen artean Kultura Sailburuordetzari lotutako honako hauek sartzeko aukera azter liteke:

- E38a: Euskaldunen bilakaera.
- E38b: Gazte euskaldunen kopurua (< 30 urte).
- S42: Euskararen erabilaren bilakaera.
- D11-2: Euskararen transmisioa.
- D11-3: Euskararen erabilera etxean.
- D11-4: Euskararen erabilera sustatzeko aldeko jarrera.
- D11-9: 15 eta 29 urte arteko gazteek arte-jardueretan parte hartzea.

Gobernu Programaren adierazle sisteman jasotzen diren adierazle hauek gertukotzat jo ditzakegu KPEn helburu estrategikoekin. Edozelan ere, kontu hau baloratzea, noski, ezagutza teknikoa duten organoen esku utzi dugu.



Bien arteko integrazioan aurrera egiteko, terminologia, metodologia edo bestelako ikuspegietatik egon litezkeen aldeak ahal beste murriztea komeni da ere.

IV. KPE PROPOSAMENARI BURUZKO BESTELAKO GOGOETAK

Koordinazio Zuzendaritzak KPE proposamenari honako gogoeta hauek egiten ditu, jarraian xehatutako edukiei dagokienez:

a) Plan estrategikoen gutxieneko edukiak.

Plan estrategikoen gutxieneko zortzi edukietatik (Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakian deskribatutakoak), egiaztatu da Planak guztiak jasotzen dituela: (1) helburu programatikoa; (2) egoeraren diagnostikoa; (3) egiturazko edukia (printzipioak, ardatz estrategikoak, helburuak), (4) garatu beharreko jarduerak, (5) plangintza ekonomikoa, (6) erakunde-harremanaren eskema, (7) gobernantza- eta ebaluazio-eredua (8).

Egoeraren diagnostikoari dagokionez, aurreko planaren aurretiazko ebaluazioa egiteko beharrari buruz esandakoa errepikatu behar da. Jakina da COVID-19ak eragindako egoerak exekuzioa baldintzatu duela. Alabaina, horrek ez du inplementatutako politika publikoaren egokitasunaren ebaluazioa baztertzen. Horrela, ebaluazio hori egitekotan KPE egokitzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Egiturazko edukiori dagokionez, KPEk **hiru ardatz nagusi** ditu: kulturaren sorkuntza, eskaintza eta transmisioa. Hiru helburu nagusiei bi zeharkako konpromiso gehitzen zaizkie; batetik, euskararen biziberritzeak eta, bestetik, genero berdintasuna bermatzeak.

KPEk **lau helburu estrategiko** identifikatzen ditu. Lehenengo hiru helburu estrategikoak (talentua garatzeko aukerak ugaltu, kultur eskaintza aberastu eta gizarteratu, eta kultura ondarea eta komunitateen garapena uztartu) aurrez adierazitako 3 ardatzei lotuak daude; laugarrena, berriz, zeharkakoa da eta aspektu guztietan eragiten du (jauzi digitala sustatu eta ahalbidetu). Egokitzen jotzen dugu Jauzi digitala helburu estrategiko bezala jaso izana, eta beste hiru helburu estrategikoekiko interkonexioa ondo definituta dago.

KPEren 4 helburu estrategikoak **16 jardun lerrotan** gauzatzen dira. Jardun lerro bakoitzari dagozkien ekintzak KPEren 4.1. atalean zerrendatzen dira, eta horietako batzuk, mugarritzat jotzen direnak, 4.2. atalean zehazten dira. Zoriontzekoa iruditzen zaigu ardatz, helburu estrategiko eta mugarrien atalean zehazten diren ekintzen azalpena, horien arteko interkonexioa ondo finkatuta dago eta.

Halere, gainontzeko ekintzen deskribapena osatzeko aukera aztertzea proposatzen dugu, posible denean objektua gehiago definituz, zehaztasun handiagoz. Izan ere, plana



ebaluagarria izan dadin, garatu beharreko ekintzei dagokienez, gutxieneko eduki batzuk ezinbestekotzat jotzen ditugu:

- Objektua eta helburua.
- Beharreko baliabideak jarduera horiek eraginkortasunez gauzatzeko, eskura dauden zein jarduera garatzen den eremuari esleitutako gainerako giza baliabide eta baliabide materialetara egokituta. Plangintza egiteko unean ezinezkoa balitz jarduera bakoitzak eskatzen dituen baliabideen aurreikuspen banakatua egitea, gutxienez, ezarri beharko litzateke jarduera-ildoan edo ardatz estrategikoen mailari dagokion aurreikuspena.
- Plana gauzatzeko ardura izango duen organoa, edo organoak, zehaztea, tartean den saila eta erakundea adierazita.
- Jarduera gauzatzeko epea (egutegia koherentea izango da aurrekontu-programazioarekin)
- Jardueren edo emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleak deskribapena.

Ekintzen zerrendatzean ez dago Gobernu Programaren 87. Konpromisoaren 5. ekimenari erantzunik ematen dion jarduerarik. Hala, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin elkarlanean garatzeko konpromiso eta ekimena denez, hura betetzeko jarduera edo ekintza bat jasotzeko aukera aztertzeko gomendatzen dugu. Iradokizuna onartzekotan, koordinazio esparrua aurreikusi beharko litzateke ere.

Adierazleak atalean, ahal den neurrian, komenigarria iruditzen zaigu helburu bakoitzeko abiapuntua eta helmuga kuantifikatzea.

Plangintza ekonomikoari dagokionez, informazioa osatzeko aukera baloratzea proposatzen dugu, jardueren deskripzioa osatuz.

Erakundeen harremanen eskemari dagokienez, KPEn egitura sendoa aurreikusten da, ez soilik Eusko Jaurlaritzako organoen artean baizik eta EAEko gainontzeko erakundeekin eta kultur arloko eragileekin ere. Baita Estatuarekin ere (69. orrialdean azaltzen denez).

Gobernantzari dagokionez, 69. orrialdeko taulan, gazteriari lotutako koordinazio-esparrua Lehendakaritzan baitan aurreikusi beharko litzateke (irakurzaletasunaren sustapena). Izan ere, berriki, Lehendakaritzaren eskumen-arloan sartu da Gazteriaren jardun-arloa¹¹, zeina, orain arte, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen-arloaren barruan egon baita.

Gainera, berdintasuna KPEren zeharkako konpromiso bat izanik, deigarria iruditu zaigu Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta Emakunderekin koordinazio-esparrurik aurreikusi ez izana. Arlo horretan, bi sailen arteko elkarriketa eta harremana ezinbestekotzat jotzen dugu.

¹¹ Lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretu bidez egin da eskumen aldaketa hori. [EHAA](#)n 2022ko irailaren 27an argitaratu zen.



Ebaluazioari dagokionez, KPEk bere indarraldian urtero Urteko Ekintza Plana (UEP) egiteko konpromisoa azaltzen du, non zehaztuko diren Helburu Estrategiko bakoitzari dagokionez garatuko diren ekintza zehatzak, horien arduradunak, parte hartuko duten beste erakunde edota eragileak, aurrekontua eta egutegia. Betekizun horiei funtsezkoa iruditzen zaigu jarraipen- eta emaitza- adierazleak gehitzea atal horretan, urteko ekintza plan bakoitza ebaluagarria izan dadin (urteko ekintza planaren betetze txostenari begira). Edozelan ere, jardueren deskribapen zehatza egin beharko da

Horrekin lotura estua dauka KPE osoaren ebaluazioa. Izan ere, KPEk ezartzen duenez, urteroko jarraipenaz gain, amaierako ebaluazio txosten bat egingo da planaren eta helburuen betetze-mailarekin eta adierazleen informazioarekin. Halere, ez da ezer jasotzen politika publikoak izan duen eraginari buruz. Horregatik uste dugu ondo legokela aurreikusitako jarduerak lortutako eraginak aztertzea. Gainera, UEP bakoitzaren betetze txostena egitea aurreikusten bada ere, zehazki zer neurtuko den amaierako ebaluazio txostenean argi utzi beharko litzateke une honetan, interpretaziotarako tarterik egon ez dadin.

Ez da berariaz aipatzen plangintza ezartzeko unean parte hartzeko egon daitekeen mekanismoa, baina ulertu beharko litzateke zeregin hori Hakobari egokituko zaiola, esleitzen zaizkion eginkizunen arabera. Horrek ez du oztopo izan behar Estrategia herritarren parte-hartzeari irekia izan dadin, edozein administrazio eskura dituen bitartekoak erabiliz.

Horrela, Plan Estrategiko orok KPE proposamenari dagokionez eduki behar dituen gutxieneko edukiak egiaztatzeko taula honako hau da:

	PLANAREN PROPOSAMENAREN EDUKIA	
1	Sarrera. Gobernu Programaren lotura	✓
2	Egoera-diagnostikoa.	Moldagarria
3	Printzipio, ardatz edo helburu estrategikoak.	✓
4	Inplementatu beharreko ekintzak.	Moldagarria
5	Plangintza ekonomikoa.	✓
6	Erakunde-harremanak eta partaidetza.	✓
7	Gobernantza Eredua.	Moldagarria
8	Jarraipen- eta ebaluazio-sistema	Moldagarria

b) Ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-artikulazioaren esparruan eta haren eskumen-esparruan kokatzea, bai eta beste administrazio-eremu batzuekiko koordinazioa ere.

Ekimen honen oinarri dira Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10. artikuluan, 17. eta 19. zenbakietan, EAERI emandako kultura-arloko eskumenak. Hain zuzen, 17. zenbakian



xedatutakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kultura-arloan (Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe). Bestalde, lehen aipatutako 10. artikuluan 19. zenbakiak Euskadiri ematen dio ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren gaineko eskumen eskusiboa, eta EAEk bere gain hartzen du Estatuak ondare hori esportazioaren eta espoliazioaren aurka babesteko ezarritako arauak eta betebeharrak betetzea.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarritako eskumen-araubideari dagokionez, 6. artikulua honakoa xedatzen du: EAEko erakunde komunen eskumena da Autonomia Estatutuaren arabera Erkidego honi dagozkion gai guztiei buruz legeak egitea edo lege horiek betearaztea, non eta gai horiek, estatutu horretan, aipatutako legean edo ondorengo lege batzuetan, ez zaizkien lurralde historikoetako foru-organismoek aitortzen edo esleitzen. Arau horretako bigarren zenbakiak adierazten du lege-mailako arauak emateko ahalmena Eusko Legebiltzarrari bakarrik dagokiola. Lurralde Historikoen Legearen 7. artikulua foru-erakundeei esleitzen die ondare historiko-artistikoa, monumentala eta arkeologikoa kontserbatu, hobetu, berriztatu edo, hala badagokio, induskatzeko lanetan erakunde komunitatik sortutako arauak garatu eta betetzeko eskumena.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17. artikuluan aitortzen duenez, udalerrien eskumen propioa da: kultura eta kultura- jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea; eta udal ondare historikoa babestea, kudeatzea eta kontserbatzea.

Aipatzekoa da ere ekainaren 23ko 5/2022 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena).

KPEn azaltzen diren ekintza asko erakunde arteko izaera dutela nabarmendu behar dugu. Eta aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraiki ondorioztatzen dugu eskumen esparruaren barruan kokaturik daudela, betiere erakunde bakoitzaren eskumen esparrua errespetatuz.

Beste administrazio-eremu batzuekiko koordinazioari dagokionez, funtsezkoa da Kulturaren Euskal Kontseilua sortu eta arautzen duen azaroaren 7ko 219/2000 Dekretuari aipamen bat egitea. KPEk argi azaltzen du Kulturaren Euskal Kontseiluaren osaera eta eginkizunak. Aipamen berezia egiten zaio ere Herri Aginteen arteko Koordinazio Batzordeari (Hakobari) KPE osoan zehar gainera. Kulturaren Euskal Behatokiaren eginkizuna ere erabakigarria izango da.

Beste erakunde eta eragileekin, nahiz eta eskumenik ez izan, lankidetasun harreman zuzena du Jaurlaritzak eta alor publikoaren eta pribatuaren osagarritasuna eta lankidetzatza bilatu behar dela azpimarratzen da ere.



Azkenik, Espainiako Gobernuarekin bitariko elkarrizketa harremana dauka Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak. Alor espezifikoagotan, Arte Eszenikoen eta Musikaren Estatuko Kontseilua eta Jacobeo Kontseiluan parte hartzen du ere Eusko Jaurlaritzak.

c) Jaurlaritzaren plangintza orokorrarekin eta Gobernu Programan ezarritako jarraipen-adierazle eta -helburuekin duen koherentzia.

Gobernu Programak 10 herri-helburu aurreikusten ditu, gobernu-ekintzaren ezinbesteko erreferente direnak. KPEk Gobernu Programak identifikatutako herri-helburuetan zuzenean eragiten ez badu ere, hainbat helburuekin zeharkako lotura duenik ezin da ukatu; hala nola, berdintasunaren arloan (5. herri-helburua) zein euskararen esparruan (6. herri-helburua).

KPEk berak kultura politikari dagozkion Gobernu Programako konpromisoak zuzen identifikatzen ditu, baita ere Kultura eta Hizkuntza Politiketako Sailaren eskumen esparruaren baitan zein kanpoan kokaturik daudenak (eta lankidetzan burutu beharreko konpromiso eta ekimenak). Halere, txosten honetan dagoeneko adierazi izan dugun bezala, lankidetzan gauzatu beharreko konpromiso eta ekimenen zerrendan, 42. konpromisoaren 5. ekimenari, 87. konpromisoaren 5. ekimenari eta 137. konpromisoaren 3. ekimenari aipamena egitea komeni ote den aztertu beharko litzateke. Horiek onartzekotan, konpromiso eta ekimenak gauzatzeko jardueraren edo ekintzaren bat jasotzeko aukera aztertzeko gomendatzen dugu.

KPEren hainbat ataletatik kultura arloaren zeharkakotasuna ondorioztatzen da. Bestalde, koordinazio esparruetan erreparatuz, nabaria da kultura arloaren zeharkakotasuna.

Zeharkakotasun izaera horretatik plangintza orokorra aztertzeko beharra ondorioztatzen da. KPEren 1.5. PLAN ESTRATEGIKOAREN MARKO PROGRAMATIKOA atalean zehazten denez, KPEk Gobernu mailako beste hainbat plan estrategikoekiko eta sailtako planekiko lankidetzak bilatu eta landu du: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2030; Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024; Hezkuntzaren Plan Estrategikoa; Euskadi Basque Country Estrategia 2025; edota Turismoaren eta Merkataritzaren Plan Estrategikoa. Sailtako planifikazioari dagokionez, aipatzekoa iruditzen zaizkigu Hizkuntza Teknologia Planari eta II. Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategiari (2022-2026) erreferentzia egitea, KPErekin dituen loturengatik.

Gainera, Bepiztu- Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programarekin (2020-2024)¹² duen lotura argia da. Bepiztu programa ekonomia eta enplegua berreskuratzeko funtsezko erronken gaineko erantzun integrala da, eta plan estrategikoetan garatzea eta zehaztea aurreikusten du. Erlazioa hori KPEren 1.5. atalean adieraztea gomendatzen dugu, ukazina delako Bepiztu Programarekin duen lotura.

¹² 2020ko azaroaren 3an Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu zen.



Gainera, “Giza Garapen Jasangarriaren” euskal ikuspegia bi dimentsiotan burutzen da: “Hazkunde Jasangarria”, bertan sartzen direlarik hazkundearekin, ekonomia suspertzearekin, jasangarritasunarekin eta kalitatezko enpleguaren sorrerarekin lotutako eremuak; eta “Giza Garapena”, zeinak bereziki lantzen baititu osasunarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin eta gizarte-politikekin lotutako eremuak, hau da, azken finean, pertsonen bizi-kalitatea.

Aurrekoak berresten du KPEren eta Gobernuaren ekintzaren hainbat esparruren arteko interkonexioaren ideia, aztergai dugun dokumentuan aintzat hartu direnak, eta planaren ezarpenean oso presente egon behar direnak. Interkonexio horretan aurrera egiteko, txosten honetan jasotako gogoetekin osatzeko gomendioa luzatzen dugu.

Interkonexio horretan aurrera egiteko beharrezkoa da, gobernu-ekintzaren planen edo ekimenen identifikazio formaletik haratago, KPE gauzatzeko prozesuan neurri eta ekimenen inplikazio eraginkorra izatea. Izan ere, horrek ahalbidetuko du integrazioa eta aniztasunaren arteko harremana.

V. ONDORIOAK

Txosten honek baloratu behar dituen alderdiei dagokienez, Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakian ezarritakoaren arabera, honako ohar hauek egiten dira:

1.- KPE proposamena koherentea da XII. Legegintzaldiko Gobernu Programan ezarritako eduki eta helburuekin.

2.- Aurreko aldiaren inplementatutako planaren ebaluazioari dagokionez, KPEren proposamenak, nolabait, aditzera ematen du, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, plana ez dela aurreikusitako bezala burutu. Aitzitik, COVID-19aren disrupzioak ez luke aurreko planaren ebaluazioa galarazi behar. Edozelan ere, diagnostikoa osatzeko KPEren 2.2 eta 2.3 ataletan jasotako informazio kuantitatibo eta kualitatibo xehearen balioa nabarmendu behar dugu.

Nolanahi ere, agian, diagnostikoa osatu zitekeen aurretiaz inplementatutako politika publikoaren egokitasunaren ebaluazioarekin.

3.- Nahiz eta kulturaren plan estrategikoa ez datorren bat, denboraren ikuspegitik, arestian zerrendatutako plangintza-dokumentuekin, plangintzaren testuinguruan jartzen duen tratamendurekin (planaren 1.5 atala) eta aipatutako planaren 3. atalarekin, lerrotze egokia dagoela pentsarazten digu.

Hala ere, erreferentziazko plangintzekin denbora-kointzidentziarik ez dagoela egiaztatuta (Euskadi Basque Country 2025 Estrategia izan ezik), interesgarria izan liteke



aukera hori egitera eraman duten arrazoiei buruzko informazioa osatzea; kontuan hartuta, halaber, proposatutako epea legediaz haratago doan ikuspegia duela.

4.- Jarraipen- eta ebaluazio-prozesuari buruz, bi iradokizun. Batetik, KPEk aurreikusten dituen ekintza planen ebaluazioa jarduera- eta emaitza-adierazleekin osatzeko aukera aztertu beharko litzateke. Bestetik, KPEk amaierako ebaluazio txostenari dagokionez, ondo legoke baita ere aurreikusitako jarduerak lortutako eraginak aztertzea KPEren jasotako politika publikoak izan duen eragina ebaluatze aldera.

5.- Inplementatu beharreko jarduerari dagokionez, deskribapena osatzeko aukera aztertzea proposatzen dugu, posible den kasuetan, objektua gehiago definituz eta honako eduki hauek barne hartuz: jarduerak eraginkortasunez gauzatzeko behar diren baliabideak; ardura izango duten organoak; gauzatzeko epea; eta emaitza- eta jarduera-adierazleak.

Zoriontzekoa iruditzen zaigu ardatz, helburu estrategiko eta mugarren atalean zehazten diren ekintzen azalpena, horien arteko interkonezioa ondo finkatuta dago eta. Halere, gainontzeko ekintzen deskribapena osatzeko aukera aztertzea proposatzen dugu, posible denean objektua gehiago definituz, zehaztasun handiagoz, plana ebaluagarria izan dadin.

6.- Adierazleei dagokionez, KPEk jasotzen dituen adierazle batzuk bat datoz, funtsean, Gobernu Programaren jarraipen-adierazleen sisteman jasotakoekin. Halere, bien arteko integrazioan aurrera egiteko, txosten honetan adierazitako eta Kultura Sailburuordetzari lotutako adierazleak gehitzeko aukera azter liteke.

Bestalde, proposatutako hainbat adierazleen kasuan, abiapuntua eta helmuga kuantifikatzea posible den aztertzea gomendatzen dugu. Beste adierazle batzuk termino absolutuetan adierazita daude, eta ez termino erlatiboetan. Termino erlatiboetan adieraztea proposatzen dugu, horrela plangintzaren indarraldiaren hasierako oinarritzko datua (hau da, abiapuntua) eta azken helburua (hau da, helmuga) ezarrita, bilakaeraren analisia errazten da. Artxibo Legeari lotutako adierazleari dagokionez, berriki indarrean sartu den lege horren eragina neurtzeko baliagarria den adierazle batekin ordezkatzeko proposatzen dugu.

7.- Ebaluazioari dagokionez, KPEk bere indarraldian urtero Urteko Ekintza Plan bat egiteko konpromisoa azaltzen du, honako alderdi hauek zehaztuko direlarik: Helburu Estrategiko bakoitzari dagokionez garatuko diren ekintza zehatzak, horien arduradunak, parte hartuko duten beste erakunde edota eragileak, aurrekontua eta egutegia. Alderdi horiei jarraipen- eta emaitza- adierazleak gehitzea proposatzen dugu, urteko ekintza plan bakoitza ebaluagarria izan dadin (urteko ekintza planaren betetze txostenari begira). Edozelan ere, jardueren deskribapen zehatza egin beharko da ere.

Horrekin lotura estua dauka KPE osoaren ebaluazioa. Izan ere, KPEk ezartzen duenez, urteroko jarraipenaz gain, amaierako ebaluazio txosten bat egingo da planaren eta



helburuen betetze-mailarekin eta adierazleen informazioarekin. Halere, ez da ezer jasotzen politika publikoak izan duen eraginari buruz. Horregatik uste dugu ondo legokela aurreikusitako jarduerak lortutako eraginak aztertzea. Gainera, Urteko Ekintza Plan bakoitzaren betetze txostena egitea aurreikusten bada ere, zehazki zer neurtuko den amaierako ebaluazio txostenean argi utzi beharko litzateke une honetan, interpretaziotarako tarterik egon ez dadin.

8.- KPEren proposamena Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-artikulazioaren eta haren eskumen-esparruaren barruan dago, eta orokorrean koordinazio-eremu egokia jasotzen du.

Gobernantzari dagokionez, 69. orrialdeko taulan, gazteriarri lotutako koordinazio-esparrua Lehendakaritzan baitan aurreikusi beharko litzateke (irakurzaletasunaren sustapena). Izan ere, berriki, Lehendakaritzaren eskumen-arloan sartu da Gazteriaren jardun-arloa, zeina, orain arte, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumen-arloaren barruan egon baita.

Bestalde, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin ere, Gobernu Programaren 87.5 ekimena betetzeko koordinazio esparrua aurreikusteko proposamena egiten dugu. Gainera, berdintasuna KPEren zeharkako konpromiso bat izanik, arlo horretan eskumena den sailarekin eta Emakunderekin koordinazio-esparrua ere aurreikusi beharko litzatekela pentsatzen dugu.

9.- KPEren proposamena bat dator Jaurlaritzaren plangintza orokorrarekin eta Gobernu Programan ezarritako jarraipen-helburu eta -adierazleekin. Hala ere, adierazleen sistemari buruzko atalean koherentzia hori indartu beharko da bien arteko aldeak murrizteko; Gobernu Programaren adierazleen sisteman KPEn jasotzen direnak eta oraingoz lehenengoan jasota ez daudenak sartuta.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 30a.

Joana Egiluz Ibarquen
Plangintzaren eta Koordinazioaren arduraduna

O.E.: Luis Petrikorena Arbelaiz
Koordinazio Zuzendaria